

"INNOBASQUE" AGENCIA VASCA DE LA INNOVACIÓN / "INNOBASQUE" BERRIKUNTZAREN EUSKAL AGENTZIA

Sozietatearen izena

Asociación Innobasque Agencia Vasca de la Innovación / Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentzia

IFK

G48997159

Izaera

Elkartea.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

1998ko apirilaren 3an Red Vasca de Ciencia y Tecnología e Innovación Saretek eratu zen eta Elkartearen Erregistroan inskribatu zen, [1998ko azaroaren 20ko ERABAKIAN, Azterlanen eta Araubide Juridikoaren zuzendariak Elkartearen Erroldan joan den urrian egin diren sarrerak eta oharrak argitaratzeko emandakoan](#), jasota dagoen bezala. Gero, 2007ko uztailean egindako Aparteko Batzar Orokorrean, estatutuak aldatzea eta izena aldatzea erabaki zen, eta ordutik Agencia Vasca de la Innovación-Berrikuntzaren Euskal Agentzia du izena.

2007ko abenduaren 19ko Aparteko Batzar Orokorrak fusio bidez xurgatzea erabaki zuen Eurobulegoa, *Agencia vasca para el desarrollo de la I+D internacional eta Asociación Clúster del Conocimiento en Gestión Empresarial* elkartea, eta elkarte xurgatzaileari blokean pasatzea, xurgatuen ondare sozialaren ondorengotza unibertsaleko tituluaren bidez, eta xurgatzailea haien eskubide eta obligazio guztietan subrogatuta geratzea. Era berean, 2008ko ekitaldian onartu zen elkartearen izena aldatzea eta *Innobasque Agencia Vasca de la Innovación-Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentzia* jartzea. Aldaketa horiek publiko egin zituen [2008ko maiatzaren 2ko EBAZPENAK, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Azterlanen eta Araubide Juridikoaren zuzendariak emanak Elkartearen Erroldan joan den apirilean egin diren sarrerak eta oharrak argitaratzeko](#).

Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2013ko azaroaren 19ko bileran, erabaki zuen elkartea herri-onurakoa dela aitortzea, bere jardueraren bidez interes orokorraren alde egiten duela uste delako, [azaroaren 19ko 46/2013 DEKRETUAN](#) eta gero egindako [hutsen zuzenketan](#). jasotzen den bezala.

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

Enplegua eta Gizarte Politikak.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

Osasuna.

Ingurumena eta Lurralde Politika

EJSN

7120 Saio eta analisi teknikoak.

Helburua eta xedeak

Sozietatearen helburua da Euskadin eremu guztietan berrikuntza, espiritu ekintzailea eta sormena koordinatu eta bultzatzea, era guztietako euskal organizazioen lehiakortasuna eta ekonomia indartzeko eta euskal gizarte osoaren oraingo eta etorkizuneko bizi-kalitatea hobetzeko.

Sailkapena kontabilitate nazionalean

Sozietate ez-finantzarioak: pribatuak.

Sozietatearen Funtsa

291.661 €

Sozietatearen funtsa, 2008ko ekitaldian xurgatu ziren elkarte bazkideek egindako ekarpenek osatzen dute.

Bazkideak

Innobasqueren bazkideen artean sartzen dira berrikuntza lehentasun duten organizazioak, lantzen duten jarduera-sektorearentzat eta euskal gizarte osoarentzat lehentasun estrategiko nagusi gisa berrikuntza duten era guztietako antolakundeak. Orain [1.000 kideetik gora ditu](#).

Innobasqueren organo gorena [Bazkideen Batzar Orokorra](#) da, elkarteko 1.000tik gora bazkideek osatua. Horien artean, EAEko Administrazio Orokorreko Ekonomiaren Garapenaren eta Lehiakortasunaren Saila; Enplegu eta Gizarte Politiken Saila; Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila; Osasun Saila; Ingurumen eta Lurralde Politika Saila; eta EAEko Sektore Publikoko hainbat entitate.

2013ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	3.016.957 €
Ondare garbia	1.608.865 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	109.463 €
Batez besteko langile-kopurua	36

Sozietatearen helbidea

Bizkaiko Teknologia Parkea, Laida, 203, 48170 Zamudio (Bizkaia).

Webgunea

www.innobasque.com